

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	HAZITARAKOEN, UMETARAKO BEHORREN ETA ERRAPEKO MOXALEN ELIKADURA ETA ZAINKETAK	Iraupena	50
		Espezifikoa	
Kodea	UF0374		
Lanbide-arloa	NEKAZARITZA		
Lanbide-eremua	Abeltzaintza		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Zaldi-hazkuntza	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Jarduerak kontrolatzea eta antolatzea hazitarako arrekin, umetarako behorrekina eta errapeko moxalekin.	Iraupena	180
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Hazitarakoen, umetarako behorren eta errapeko moxalen maneia eta kokapena.	Iraupena	40
	Plangintza eta kontrola zaldi-aziendaren ugalketa-prozesuaren garapenean.		90

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UC0533_3 JARDUERAK KONTROLATZEA ETA ANTOLATZEA HAZITARAKO ARREKIN, UMETARAKO BEHORREKIN ETA ERRAPEKO MOXALEKIN gaitasun-ataleko LB7 lanbide-burutzapenarekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Hazitarakoen, umetarako behorren eta errapeko moxalen elikagaien, osagarrien eta elikadura-gehigarrien hornidura antolatzea eta gainbegiratzea, produkzio-fase bakoitzean horien elikadura-premiak asetzearren.

E11.1 Aurrerako animalien eta errapeko animalien elikadura-programa egiteko behar den informazioa interpretatzea.

E11.2 Produkzio-faseetan aurrerako eta errapeko animalia bakoitzari edo taldeari hornitu beharreko elikagai-motak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak antzematea.

E11.3 Aurrerakoentzako eta errapekoentzako elikagaien, osagarrien eta elikadura-gehigarrien hornidura-ekipamenduak deskribatzea, baita horien erregulazioa, garbiketa eta mantentzea ere.

E11.4 Aurrerako eta errapeko azindari elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko programa bat lantzea, urteko garaiaren arabera, eta animalien jardueraren eta egoera fisikoaren arabera, hornidura-ordutegiak eta kantitate espezifikoak finkatuz.

E11.5 Adieraztea zein kasutan den derrigorrezkoa hazitarakoen, umetarako behorren eta errapeko moxalen elikadura osatzea eta/edo amaren esnea edoskitze artifizialarekin ordezkatzeko eta hori egiteko moduak.

E11.6 Aurrerakoentzako eta errapekoentzako pentsuak, belarrak, bazkak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak biltegitratzeko eta kontserbatzeko irizpideak zehaztea.

E11.7 Ustiategi bateko aurrerakoentzako eta errapekoentzako elikadura-programaren kontrola egitea, anoen banaketa, ezaugarriak, kalitatea eta kantitatea egokiak direla egiaztatzea.

E11.8 Hazitarakoei, umetarako behorrei eta errapeko moxalei elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokiaren eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezififikazioak identifikatzea.

A2: Hazitarakoak, umetarako behorak eta errapeko moxalak osasun-egoera onean mantentzeko egin behar zaizkien higijene-zainketa espezifikoak eta ezinbesteko osasun-neurriak gainbegiratzea.

E12.1 Ustiategira aurrerako eta errapeko berriak iristen direnean izan daitezkeen gaixotasunak sartzea eta sakabanatzea eragozteko hartu beharreko higijene- eta osasun-jarraibideak zerrendatzea.

E12.2 Aurrerako eta errapeko azindari egiten zaizkien oinarritzko garbiketa- eta higijene-lanak zehaztea.

E12.3 Animalia bizidunetan edo irudikatzen dituen grafiko batean, gorputz-atalak atzematea aurrerakoentzako eta errapekoentzako tratamendu higieniko-sanitario desberdinak aplikatzeko.

E12.4 Aurrerako eta errapeko azindari higijene- eta osasun-neurriak aplikatzeko materialak eta ekipamenduak zehaztea, baita horien erabilera-moduak, funtzionamendua eta mantentzea ere.

E12.5 Ustiategiko aurrerako eta errapeko azindarientzako prebentzio-programa sanitarioa planifikatzea.

E12.6 Aurrerakoek eta errapekoek izan ditzaketen gaixotasun jakin batzuen seinale eta sintoma nagusiak identifikatzea.

E12.7 Gaixorik dauden aurrerakoentzako eta errapekoentzako zainketa-irizpideak, isolamendu-neurriak eta zainketa aringarriak zehaztea.

E12.8 Behar bezala betetzea aurrerakoentzako eta errapekoentzako egiten zaizkien higijene- eta osasun-jardunen erregistroak, ustiategian ezarritako protokoloen arabera.

E12.9 Aurrerako eta errapeko azienda duten zaldi-abeltzaintzako ustiategietarako biosegurtasunari buruz (gorpuen, hondakinen eta azpiproduktuen tratamendua) ezarritako oinarritzko gomendioak definitzea.

EI2.10 Aurrerakoan eta errapekoen higiene- eta osasun-jardunetarako, nekazaritzako eta abeltzaintzako industriaren sektorerako ingurumen-jardunbide egokien eskuliburuan, laneko arriskuak prebenitzeko araudian eta animalia-ongizatearekin lotutako jardun-irizpideetan jasotako espezifikazioak identifikatzea.

Edukiak

1. Zaldi-aziendako aurrerakoan eta errapekoen ezaugarri morfologikoak.

- Aurrerakoan eta errapekoen kanpoaldea.
- Aurrerakoan eta errapekoen gorputz-atalak: zona sentikorrek. Akatsak eta tarak.
- Aurrerakoan eta errapekoen ilajeak eta ileak: kolorazioak eta berezitasunak.
- Aurrerakoan eta errapekoen ezaugarri morfologiko bereizgarriak zaldi-arraza nagusietan.

2. Zaldi-aziendako aurrerakoan eta errapekoen ezaugarri fisiologikoak.

- Aurrerakoan eta errapekoen digestio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerakoan eta errapekoen arnas aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerakoan eta errapekoen zirkulazio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerakoan eta errapekoen lokomozio-aparatuaren fisiologia: ezaugarri morfologikoak eta funtzionamendua.
- Aurrerakoan eta errapekoen ezaugarri fisiologiko bereizgarriak zaldi-arraza nagusietan.

3. Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen elikadura.

- Elikagaien printzipio nutritiboak: ezaugarriak.
- Elikagaien digerigarritasuna animalia helduetan eta errapekoetan.
- Aurrerako eta errapeko animalientzako elikagai-motak.
- Osagarrien eta gehigarrien ezaugarriak eta garrantzia aurrerakoan eta errapekoen elikaduran.
- Edoskitze artifiziala: metodoak, hornidura-ekipamenduak eta erabilera-kasuak.
- Aurrerakoentzako eta errapekoentzako elikagaiak, osagarriak eta elikadura-gehigarriak banatzeko, kontserbatzeko eta biltegitratzeko metodoak, ekipamenduak eta jarraibideak.

4. Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen higiene-zainketak.

- Aurrerakoan eta errapekoen garbiketa eta higiene orokorra: dutxa, eskuilaztea, zurden eta buztanaren korapiloak kentzea eta orraztea, eta apoen zainketak.
- Hazitarakoentzako, umetarako behorrentzako eta errapeko moxalenzako zainketa-jarraibideak eta higiene-tratamendu espezifikokoak.
- Hazitarakoaren eta behorren ugalketa-aparatuaren kanpoko organoen garbiketa eta desinfekzioa.
- Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen zainketarako eta higienerako metodoak, ekipamenduak eta instalazioak.
- Aurrerakoan eta errapekoen higiene-zainketen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
- Aurrerakoan eta errapekoen zainketarako eta higienerako produktuen erregistroa: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.

5. Osasunaren alterazioak eta derrigorrezko osasun-jardunak hazitarakoentzat, umetarako behorrentzat eta errapeko moxalenzat.

- Gaixo dauden hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen identifikazioa eta detektatzea: gaixotasun-seinale eta -sintoma nabariak. Lesio eta zauri ohikoenak. Ohiko prozesu patologikoak.
- Hazitarakoentzako, umetarako behorrentzako eta errapeko moxalenzako tratamendu zootekniko prebentiboak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Hazitarakoentzako, umetarako behorrentzako eta errapeko moxalenzako tratamendu propedeutikoak eta terapeutikoak: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Txertoak jartzeko eta barne- eta kanpo-parasitoak hiltzeko programak aurrerako eta errapeko aziendarentzat: horiek aplikatzeko maiztasuna, baliabideak eta moduak.
- Aurrerakoei eta errapekoei egindako tratamendu sanitarioen erregistroak: datuak jasotzea eta kontrolatzea.
- Medikamentuen erregistroa: horien izakinen kontrola eta jarraibideak.

6. Hazitarakoan, umetarako behorren eta errapeko moxalen elikaduraren eta zainketen antolakuntzan eta kontrolean aplikatutako informatika

- Material informatikoaren maneia.
- Jarduerarekin lotutako programa informatikoen ezagutza eta maneia.

7. Zaldi-aziendako aurrerakoan eta errapekoen zainketarekin eta higiene- eta osasun-jardunekin lotutako araudi erregulatuak.

- Ingurumen-babesa
- Lan-arriskuen prebentzioa
- Animalien ongizatea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Zaldi-hazkuntza